



LEA/AVCk, enpresen arteko lankidetzak akordioak lehiaren kontrakotzat hartuak ez izateko baldintzei buruzko informazioa ematen du

Lehiaren Euskal Agintaritzak segurtasun juridikoa eman nahi die koronabirusaren agerraldian behar-beharrezko produktuen eta zerbitzuen eskasiari aurre egitera zuzendutako lankidetzak hitzarmenak lantzen dituzten enpresei

Harremanetan jarri da Confebaskekin, Adegirekin, Cebekekin, SEArekin, Merkataritza Ganberekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailekin

BILBON, 2020ko apirilaren 29an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC), lehiaren araubidearen kontrakoak ez izateko enpresa proiektuek bete behar dituzten baldintzak jakinarazi dizkie enpresei eta, horrela, enpresa-lankidetzako proiektu espezifikoak kontsultatzeko aukera ematen du, koronabirusaren pandemiak eragindako larrialdi epealdian lehiari buruzko arautegia betetzen ari diren ala ez aztertzeko. Erakundea harremanetan jarri da Confebaskekin, Adegirekin, Cebekekin, SEArekin eta Merkataritza Ganberekin, informazio hori euren kide diren enpresei helarazteko, eta baita Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailekin ere.

Enpresek Lehiaren Euskal Agintaritzarekin kontsultatu ahal izango dute koronabirusaren agerraldian behar-beharrezko produktuen eta zerbitzuen eskasiari aurre egitera zuzendutako lankidetzak hitzarmenek beharrezkoak eta proportzionaltasunaren betekizunak betetzen dituzten, egungo larrialdi egoera kontuan hartuta, akordioak aldi baterakoak eta hirugarrenei irekiak diren, informazio garrantzitsua elkartrukatzea saihesteko neurriak ezartzen diren, eta akordioa dokumentuetan ezartzeko betekizuna betetzen den. Kontuan izan behar da Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua lege debekatzen dituen akordio horiek sektore batzuetan, eta aldi baterako, legearen barruan egon daitezkeela, behar-beharrezko produktuekin eta zerbitzuekin erlazionatuta daudenean.

LEA/AVCk segurtasun juridikoa eman nahi die gaur egungo salbuespeneko egoeraren eremuan kooperazio-proiektuak gauzatu dituzten euskal enpresei, eta baita proiektuak negoziatzen ari direnei ere, Europar Batzordeak joan den apirilaren 8an eman zuen jakinarazpenari dagokionez (DOUE 2020/C 116 I/02). Bertan, COVID 19aren agerraldian behar-beharrezko produktuen eta zerbitzuen eskasiari aurre egiteari dagozkion balizko



kooperazio-proiektuak ebaluatzeko irizpideak iragarri zituen.

Enpresek, e-mail helbide honetara bideratu ditzakete beraien kontsultak:
infocompetencia@avdc.eus

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoetarako dagokienez.